

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## Europako Hizkuntza Minorizatuen Karta

Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Europako Hizkuntza Minorizatuen Karta onartu zuen ekainaren azken egunetan. Agiria urriaren 2an jarriko da Europako Kontseilua osatzen duten hogeitazazpi estaturen esku sina dezaten. Ekainaren 29an Karmelo Sainz de la Maza Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren idazkari-sailburuak eta M. Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak aipatutako Karta aurkeztu zuten.

Agiria garrantzitsua izan daiteke, Europako hizkuntza minorizatuen babes juridikorako lehen nazioarteko hitzarmena bait da. Gaur egun Euskal Herria administrazio desberdinetan banatuta baldin badago ere (EAE, Nafarroa eta

Iparaldea), gerora, eta hitzarmen honek jasotzen duenari esker, elkar lanerako bideak areagotu egin daitezke.

Agirian justizia, administrazioa, irakaskuntzan eta komunika-bideetan egiten den hizkuntza minorizatuen erabilera aipatzen da. Estatu sinatzaileek konpromezua hartzen dute auzo herrietatik edozein estaturen lurralde bateko hizkuntza berean egindako irrati edo telebista emisioak errespetatzeko eta haien zabalkundean oztoporik ez jartzeko.

Kartaren atalak betetzen direla bermatzeko, adituz osatutako jarraipen-batzordea eratuko da. Sinatzaileen artean Frantzia eta Espainia egongo dira.



1992ko abuztua



## Zortzi alderdi nafarrek Euskararen Lege herria eskatu dute

1986ko Euskararen Legeak ez du asmatu nafarren hizkuntza beharrei erantzuten. Nafarroak lege berria behar du, beraz. Hori dio Batzarrek, EAk, EAJ-k, EEk, EuEk, HBk, IUk eta Alderdi Karlistak sinatu duten agiriak.

Lege berriak aldaketa sakonak ekarriko lituzke euskararen eta euskarazko irakaskuntzan, Nafarroa osoko toponimian eta komunikabideen euskararen erabilpenean. Euskara ofiziala izango litzateke Iruñean. Agiria PSN-PSOeri eta UPNri aurkeztuko zaie.

1986ko legeak "gaztelania Nafarroako hizkuntza ofiziala dela" dio eta erresuma hiru zonaldetan banatzen du: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna.

3. zenb.

# Andoni Sagarna euskara gizarteratzen

Andoni Sagarna gure garaiak Euskal Herrian eman duen gizon interesgarri horietakoa dela esango genuke. Jakinmin bezala, orokortzailea eta sustatzailea da. Donostian jaioa orain 45 urte, Usurbilen bizi da bere emazte eta hiru alabarekin.

Goi mailako Injinerutza ikasi zuen Donostian. Arrasateko Eskola Politeknikoan irakasle izana da, Usurbilgo Ekain kooperatibako sortzailetariko, UZEIko zuzendaritza teknikoan hamaika urtez eta gaur egun EUSENOREko sortzailetariko eta zuzendari tekniko.

1970ean *Soziologiaren hastapenak* liburua argitaratu zuen. Ehundaka artikuluren egile. 1988an *Lexikoaren modernizazioa zenbait hizkuntzatan* bere doktoradutza-lana aurkeztu zuen Bartzelonako Unibertsitatean.



A. Sagarna

1971tik Elhuyar elkarteko partaidea eta gaur egungo lehendakaria. Euskaltzain urgazle eta

Euskararen Aholku Batzordearen kide.

Bere azken erronka *Euskal Enziklopedia Orokorra* da, EUSENOR S.A. Euskal Herriko Ikastolen Elkarte, Elkar, Elhuyar eta UZEIren artean sortua, bestelako enpresa pribatu eta herri-erakundeen partaidetza izango du.

Hamabost urterako 3.000 milioi pezetako aurrekontuarekin, biltegi enziklopediko

informatizatua eraiki nahi dute. Datu-base honetaz baliatuz, Euskal Enziklopedia Nagusia, Oinarritzko Hiztegi Enziklopedikoa, Euskal Herriko Enziklopedia eta beste maila batean atlasak, urtekariak, hiztegiak, etab. argitaratu nahi dituzte.

## Seaska kexu

◆ Ia 2.000 pertsona irten ziren Baionako kaleetara Seaska eta Frantziako Gobernuaren Hezkuntza ministeritzaren arteko negoziazioa eskatzera. Aurten amaitzen da 1989ko hitzarmena eta datorren irailerako itun berririk lortzen ez bada, Seaskaren etorkizuna zalantzan egon liteke.

◆ *Behi euskaldun baten memoriak* Bernardo Atxagaren azken nobela gaztelaniaz plazaratu berri da *Memorias de una vaca* izenburuarekin SM argitaletxean.

◆ Nafarroako Erriberako etxe gehienotan orain ETBren kanal biak har daitezke, Kabanillasko S. Gregorio mendian jarri den errepetidore berriari (4 milioi PTA) esker. Beharrezkoa izan da Beterri peñaren, Tuterako eta Kabanillasko udalen eta ETBren arteko elkarlana.

**Euskal kazetaritzaren hastapenak.** Hori izan da Donostiako Herri Irratiko **Javier Diaz Noci** kazetariak Euskal Herriko Unibertsitatean ekainean aurkeztu duen tesi doktoralaren izenburua. Ia mila orritan, Javierrek euskal kazetaritzaren hasieratik (1834ean Donostiako *El Correo del Norte* aldizkari liberallean) 1937an *Eguna* egunkaria desagertu zenerainoko historia aztertu du. Epaimahaiaren erabakia: "Apto cum laude".

**Azkue Liburutegiak** leku berria du Euskaltzaindiak Bilboko Plaza Berrian duen egoitza berean. Urteko hiru milioi pezetako aurrekontua du. Liburutegiak 80.000 liburuki dauzka dagoeneko. Urtero 7.000 ale sartzen dira, gehienak besteek Euskaltzaindiari emandakoak. Goizeko 9.00etatik 14.00etara egoten da zabalik. Erabiltzaileak unibertsitariak eta ikerlariak dira gehienbat. Duten libururik zaharrena 1491ko S. Agustinen opuskulua da.

**Arabako Foru Aldundiak** hasieran aurikusitakoa baino diru gehiago jarriko du Arabako enpresa pribatuak euskalduntzeko. Merkataritza Ganbarekin izenpetutako hitzarmenaren arabera, Foru Aldundiak hiru milioi pezeta jarriko zituen, baina uste baino jende gehiagok eman du izena lehen deialdian: 78 pertsonak, gehienak merkataritza sailekoak. %44 emakumeak dira eta %56 gizonak. Bigarren deialdia irailean izango da.

**UEMA aldizkaria** aurkeztu berri du Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak. 1991ko maiatzean Euskal Herriko Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea sortu zen, euskaraz lan egin nahi zuten zenbait udalen arazo amankomunak konpondu ahal izateko. Arazo horietako bat informazioarena zela ikusita UEMA aldizkaria sortzea bururatu zitzaion, udalerrri euskaldun horietan egiten denari buruzko informazioa zabaltzeko.

# Orotariko Euskal Hiztegia, euskararen hiztegi historikoa

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) Euskaltzaindiak esku artean duen egitasmorik garrantzitsuenetakoa da. Euskararen hiztegi historikoa dela esan daiteke, garai guztietako eta euskalki orotako hitz altxorra batu eta sistematizatzen dituen hiztegi deskribatzailea. OEH honen jatorria Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenari agindutako Azkueren hiztegiaren bigarren edizio osatuan dago. Urteetan zehar Mitxelenak Azkueren hiztegia gaingitzen zuen datu piloa batu zuen. 1984era arte, dena den, ezin izan zen egitasmoa mamitzen hasi. 1987an, lehen alea kaleratzeaz zegoela, Koldo Mitxelena hil egin zen eta Ibon Sarasolak hartu zuen taldearen zuzendaritza. Ordenagailuaren laguntzari esker, euskal literatur tradizioko testuen hustuketa egin zen eta honen bidez, lau milioitik gora testu-hitz bildu



dituzte, alfabeto eta kronologiaren arabera sailkatuta eta beren testuinguruarekin. Lan honen programazioaz eta informatizazioaz

EJIE, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte arduratzen da. Zenbait ezaugarri: IEuskara nolabait testigatua ageri den aldiatik oraingoz 1970era arte aurki daitezkeen testuak biltzen ditu. Badaude geroagoko testuak

ere, baina ez dira izan sistematikoki bilduak.

ISO gogoan eduki izan da beti pertsona- eta toki-onomastika. - IOEH ez da arauemailea, ezta etimologikoa ere.

Ibon Sarasolarekin batera, zazpi espezialista ari dira lanean OEHan. Lana azkartze aldera, aipamenak laburtu egin dituzte. Orain arte bost liburuki argitaratu dira eta denetara hamalau izango dira. Azkena 2000. urtean plazaratuko da.


**JOSE MALLEA.** Renoko Unibertsitateko irakasle munitibarrak *Nevadako artzainen lertxun marrak*, lehendik ingelesez argitaratu zen liburua orain euskaraz plazaratu nahi du. Artzain euskaldunek estatu hartako lertxunetan utzitako milioi erdi baten aztarnaren berri ematen du bere liburuan.

**RENAUD,** abeslari frantsesak Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko musika emanaldia eskaini zuen Miarritzen. Renaudek behin baino gehiagotan abestu izan du horrelako ekitaldietan.

**PHILLIP BASTERRA,** ingelesak, 20, EHuko Gasteizko Filologia Fakultatean ikasiko du datorren ikasturtean, euskara maila hobetzeko. Bilbotar baten biloba, Cambridgeko Unibertsitatean dihardu Filologia Hispanikoa eta Frantsesa ikasten. Lazkaoko Maizpide euskaltegian landu du euskara.

## Bidegileak

HPINen *Bidegileak* bildumaren laugarren sorta da hau. Ale hauetan Kirikiño, Bizenta Mogel, Jose Manuel Etxeita eta Txomin Agirre euskal idazleak aztertzen dira. 1987an eman zitzaion hasiera bildumari, euskararen alde aritutako zenbait euskaltzaleri omenaldia eginez. Joseba Intxaustik zuzentzen du bilduma.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Wellingtono Dukea, 2 01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)**

Euskaraz  Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Probintzia:.....

Tfnoa:.....

## Galdezka

### Kontrako jarrerak

**G.** Euskararen kontrako jarrerak kezkatzen al zaituzte?

**E.** Jakina baietz. Hori dela eta, arazo guzti-guztiak kontutan izango dituen aukera edo irtenbide oroz aritzeko eta berriro pentsatzeko prest nago. Baldintza bakarra, aukera horiek aurrera egiteko borondatea agertzea da; ez dadila gerta zenbait arazotatik alde egitearren ezer egin gabe geratzea. Ezinbestekoa da gutariko bakoitzak argi eta garbi uztea zein jarrera duen, gerta bait liteke, bestela, eztabaidan ibiltzea eta denbora alferrik galtzea.

Hortaz nik neure jarrera azalduko dut: ez dugu gaztelera galtzerik nahi, euskararen normalkuntza baizik. Gure lana gizarte elebiduna eraikitzeko bideratuta dago. Herri honetako herritar guztiok egin behar dugu aldamenean duguna onartzeko ahalegina.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako  
Idazkari Nagusia

## Joko Olinpikoak ospatu?

**Ospe** hitza, dirudienez, **hots** hitzetik dator eta hori dela eta, autore zahar batzuk, Oihernatek esaterako, h-az idazten zuten. **Ospe** hitzak, beraz, "fama, entzute ona, sonatu edo entzutetsu izatea" esan nahi du. Horren bidetik sortua da 1596.eko esaera zaharren artean, honako hau: **Gal bedi gizona eta ez haren ospe ona.**

**Ospe** izenetik **ospatu** aditza dator. **Ospatu**-k berez, "txalotu, goratu, famatu eta jai giroan hartu" adierazi nahi du.

Aspaldion, eta EITBn bereziki, erdarazko **celebrar** aditzak duen adiera zabala desegokiro euskarara ere pasatuz, abusu nabariaz, aurkezle eta idazle askok **bilera bat ospatu, ikastaro bat ospatu, elizkizun bat ospatu, kirolaldi bat ospatu, Euskal Gobernuaren lehen 100 egunak ospatu** eta gisa honetako erdarakadak erabiltzen dituzte,

ospatu aditzak, erdaraz pentsatuz ez bada, horrelakorik ez duela esan nahi konturatu gabe.

Ospatu, jaialdiak, ezteiak, festak, garaipenak, jaiotzeak, etab. egiten dira, baina hitzaldiak, elizkizunak, kirolaldiak, hauteskundeak-eta, euskaraz **batu, bildu, elkartu, hartarako eratu, hartan aritu, antolatu, izan, moldatu** edo sinpleago, egin egiten dira. Inoiz, gainera, Gobernu baten lehen 100 egunak esaterako, **gogoratu edo gogoraipatu** egiten dira, ospatu barik.

Badakigu beraz: **bilera bat egin, elizkizun bat izan, hauteskundeetarako bildu, batzarrean bildu, kirolaldian aritu**, etab. Ez gaitezen bada, premiarik gabe erdararen morroi itsuak izan.

Hausnarketa hauek Xabier Kintanak Pello Salabururekin batera idatzitako Euskara hobean hobe liburutik atera dira

## ✓ Kontutan hartzeko

- **IV. Onomastika**

**Ihardunaldiak.** Renon (Nevada, EEBB) izango dira, Euskaltzaindiak eratuta. Amerika eta Filipinetako euskal antroponimia eta toponimia titulupean, 24 hizlari bilduko dira irailaren 2, 3 eta 4ean, Renoko Unibertsitateko Basque Studies Programaren 25. urteurrena dela eta.

- **Haur Hezkuntza euskaraz.** Nafarroako Unibertsitate Publi-

koak Irakasle eskolako Haur Hezkuntza espezialitatea euskaraz ikasteko aukera ematen du berriro, ikasleen aldetik dagoen eskaerari erantzuteko asmoz.

- **Lapurdi Irratia irailerako.** Ustaritze inguruko kristau talde batek bultzatuta, irailean Lapurdi Irratia 86,8 MHzetan aieratuko da euskaraz eta frantsesez. Erljioak eta otoitzek pisu handia izango dute programazioan.

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



**GOBIERNO VASCO**

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA